

Eloy Olabarri: Egun on guztiei. Eloy Olabarri naiz. FAPAE erakundeko lehendakaria naiz. Gu, Euskadiko ikasleen guraso elkartearen federazioaren (gaztelaniaz FAPAE dena) izenean etorri naiz .

FAPAEtik eskerrak eman nahi ditugu gonbidapenagatik eta guk ditugun ardurak dituzten beste elkarteengandik ikasteko aukera hau emateagatik.

Gehienok ezagutuko duzue gure ikastetxeak guraso batzuen eraginez sortu ziren. Beren famili proiektuaren eta hezkuntza proiektuaren koherentzia bilatzen zuten. Beren baliabideak erabilia gure ikastetxeak sustatu zituzten. Horren oinarrian ikasleen osoko heziketa bermatzea da helburu nagusia, giza balore, adimen balore eta balore moralak aintzat hartuta, bizitzaren ikusmolde kristauak beren eginkizunean eragitea, ikasbide kristauaren oinarriekin ados eta kontzientzia askatasunarekiko begirune osoz. Hori izan zen guraso haien hasierako programa. Hori dela eta, gure ikastetxeetan ofizialki IGEen bultzada jaso baino lehenago ere, gurasoak izan gara ikastetxeetako zuzendaritzeari laguntasuna ematen.

Gero iritsi zen legeria. Legearen arabera, IGE-ak ofizialki agertzean, gure ikastetxeek naturaltasun osoz erantsi zuten IGE figura hori, beren eskubide eta betebeharrak guztiekin.

Gaur egun, gurasoek lehen bultzatzaile horien jarraitzaileak gara.

Bultzada horri jarraipena emateko, helburu nagusi bi ditugu; alde batetik gurasoon ideien eta ikastetxearen hezkuntza proiektuaren arteko koherentzia mantentzea, eta bestetik, guraso eta ikastetxeetako zuzendaritzaren arteko komunikazio eta harremana zaintzea. Harreman hau gauzatzeko oso figura berezia daukagu IGEaren barruan, gaztelaniaz MEC izenarekin ezagutzen ditugu (matrimonios encargados de curso).

Gela bakoitzean dagoen figura bat da eta guraso guztien komunikazioa bideratzen dute. Gaur egun, internet bidez oso erraz gauzatzen da komunikazio hau.

IGEen barruan, MEC hauen funtzioak dira gurasoen laguntasuna estimulatzea, hezkuntza proiektuaren helburuak lortzeko; bigarrenik, gurasoak lehen hezitzaileak diren neurrian beren eginkizunari aurre egiteko orientazio ekintzak sustatzea; gurasoen ekimen eta iradokizunak bideratzea eta ikasleen heziketaren beste ekintza osagarriak antolatzen laguntzea. Azken honen barruan daude jaiak, famili orientazio ikastaroa eta abar. Aurten 200 senar-emazte izan dira ikastaro hauetan parte hartu dituztenak. Jolas ekintzen barruan jaiak egiten ditugu.

Ekintza solidarioen artean, kross solidarioa antolatzen dugu eta lortzen den dirua GKE bati ematen zaio gure ereduiko ikastetxeei laguntasuna emateko.

Antolakuntza aldetik, gure IGEak Euskadiko Ikasleen Guraso Elkartearen Federazioan sartuta daude. Federazio hau ere COFAPAREN barruan dago (Confederación de Padres de Alumnos) EIGEFetik ere garrantzitsu jotzen dugu Europako Gurasoen Elkartearekin lotuta egotea (EPAREN kidea da)